

FUNTSEZKO ELKARTEAK:

Gure proiektua aurrera eramateko enpresarekin erlazionatzen diren entitateak dira funtsezko elkarteak.

Gure proiektuari bultzada bat emateko, hainbat hornitzaile eta enpresa ezberdinen laguntza behar izango dugu. App bat denez, Play Store eta App Store aplikazio plataformak erabiliko ditugu eta hauek gure hornitzaileak izango dira. Lana bilatzen eta ikasketetan nora jotzen laguntzen duen app bat denez Hezkuntza, Kultura eta Kirol ministerioarekin hitz egin beharko genuke, jendea ondo bideratzeko eta aukera hoberena hautatzeko. Beste aldetik, lanbidea bilatzen laguntzeko Nazio Enplegu Sistema ministerioarekin harremanetan jarri beharko ginateke.

Nazio enplegu sistemaren barruan, entitate publikoekin hitz egin beharko genuke; adibidez, Lanbiderekin, EUSTAT, SEPE...

Hezkuntzaren barruan, link batzuk utziko ditugu eta hauek lurraldeka banatuta egongo dira, lurralde bakoitzeko bezero ezberdinak orientatzeko eta haien bizi lekuan edota beste leku desberdinetan zer bide jarraitu ahala duten jakinarazteko.

